

Euskal AEn, 2021ean, I+Gn eginiko gastua serie historikoko maximora iritsi da, 1.647 milioi eurora; % 10,5 gehiago


BPGd-aren gaineko I+Gko jardueretako gastuak 2020ko % 2,07tik 2021eko % 2,11ra egin du

2021ean, barneko I+G jarduerako gastua (ikerketa eta garapen teknologikoa) 1.647 milioi eurokoa izan da, guztira, Euskal AEn; zifra hori I+Gko gastuan sekula izan den handiena izan da, Eustatek prestatu dituen datuen arabera. Alegia, aurreko urtean baino 157 milioi euro gehiagoko gastua izan da; % 10,5 egin du gora. BPGd-aren gaineko I+Gko jardueretako gastua % 2,11koa izan da 2021ean, 2020an baino handiagoa, orduan % 2,07koa izan baitzen.

Barneko I+G jarduerak 20.804 pertsonari eman die enplegua, dedikazio osoaren baliokidetzan, 2021ean; % 6,6 egin du gora aurreko urtearen aldean. Era berean, ikertzaileetan, 14.367 pertsona dedikazio osoaren baliokidetzan; % 5,4 areagotu da, halaber.

Barneko I+Gko gastuaren bilakaera, BPGrekiko

Ehunekoa



Iturria: Eurostat eta Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Lurralde-xehetasunari dagokionez, egiaztatu da erkidegoko barneko I+Gko gastu osoaren % 46,9, 2021ean, Bizkaian egin dela; % 42,7, Gipuzkoan, eta % 10,5, Araban. Lurralde bakoitzeko BPGd-ari dagokionez, esan behar da gastu hori Gipuzkoako BPGd-aren % 2,69 dela; % 1,95ekoa, Bizkaia-aren kasuan, eta % 1,40koa, Arabaren kasuan.

Euskal AEn eginiko barneko I+Gko gastuaren % 77,4 enpresen sektoreak exekutatu du

Barneko I+Gko gastua exekutatzeko duen sektoreari dagokionez, gehiena, % 77,4 (1.275,2 milioi euro), enpresek egin dute; % 16,2 (267,1 milioi), goi-mailako irakaskuntzak, eta gainerako % 6,4a (104,7 milioi), administrazioaren mendeko zenbait erakundek. 2020arekin alderatuta, enpresek % 11,6 areagotu dute I+Gko gastua; administrazioaren mendeko erakundek, % 18,6, eta goi-mailako irakaskuntzak, % 3,2.

Barneko I+Gko gastua exekutatzeko duten sektoreen banaketa nahiko egonkor mantentzen ari da azken urteotan. Aurreko urtearen aldean, hiru sektoreetako bik, enpresek eta administrazio publikoak, barneko I+Gko gastu osoko partaidetzan % 0,7ko eta % 0,4ko hazkuntza izan dute, hurrenez hurren, eta goi-mailako irakaskuntzak, % 1,1eko beherakada.

I+Gko barne-gastuak, egikaritze-sektoreen eta fondoek jatorriaren arabera (mila euro). 2021

	Guztira	Administrazioa	Goi-mailako irakaskuntza	Enpresak	IAGEP	Atzerria
Guztira	1.646.957	541.283	34.194	933.104	7.460	130.916
Enpresak eta IAGEP	1.275.153	260.696	6.074	901.918	1.448	105.017
Herri-administrazioa	104.689	89.621	159	9.410	1.899	3.600
Goi-mailako irakaskuntza	267.115	190.966	27.961	21.777	4.113	22.299

IAGEP (Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak)

Data 2022ko Azaroaren 18a

Iturria: Eustat, Ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Barneko I+Gko gastuaren finantzaketaren ikuspegitik, Enpresek ikerketara 933 milioi euro bideratu dituzte, 2020an baino % 14,8 gehiago; alegia, finantzaketa osoaren % 56,7. Hala, finantzatzeko kopuru osoko partaidetzak gora egin du % 2,1, aurreko urtearekin alderatuta, eta lehen finantzaketa-iturria izaten jarraitzen du. Finantzaketa publikoak, bestalde, 541 milioi ekarpena egin du, eta % 6,2 egin du gora, aurreko urtearekin alderatuta; barneko I+Gko gastu osoaren % 32,9 da. Igoera handia izan badu ere, presentzia % 1,3 jaitsi da.

Gainerako funtsen jatorria honako hau da: goi-mailako irakaskuntzaren sektorea (34,2 milioi), irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak (7,5 milioi) eta atzerria (130,9 milioi). Ekarpen horiek honako aldakuntza hauek dakartzate, aurreko urtearekin alderatuta: % 0,8, -% 2,6 eta % 4,0, hurrenez hurren.

Finantzaketa publikoaren jatorriari dagokionez, administrazio autonomoaren ekarpena nagusitzen da (433,4 milioi), zeina % 5,3 hazi baita aurreko urtearen aldean eta administrazio publikoak 2021ean finantzatzeko kopuru osoaren % 80,1 baita. Bestalde, administrazio zentralak (87,3 milioi) % 16,9 handitu du finantzaketa aurten, eta % 16,1eko parte-hartzea du administrazio publikoek finantzatzeko kopuru osoan. Azkenik, aldundiek eta tokiko administrazioek (20,6 milioi) % 3,8ko parte-hartzea izan dute, baina ekarpena % 11,6 jaitsi dute, aurreko urtearekin alderatuta.

Dedikazio osoan 20.804 **enplegatu izan dira**. Exekuzio-sektoreen arabera: 14.887 pertsona, enpresetakoak (guztizkoaren % 71,6); 4.622, goi-mailako irakaskuntzakoak (% 22,2), eta 1.295, administrazio publikokoak (% 6,2). Lanbide-kategoriari dagokionez, ikertzaileak 14.367 dira, eta % 5,4 egin dute gora; 4.972 langile teknikoak dira, eta % 9,6 egin dute gora, eta, azkenik, 1.466 laguntza-langile dira, urtebete lehenago baino % 8,9 gehiago.

I+Gn 2021ean jardun duen pertsonalaren % 36,2 emakumea da

2021ean, dedikazio osoko I+Gko pertsonalaren % 36,2 emakumea da. Alegia, % 5,7ko igoera izan da, 2020. urtean I+Gan jardun zuten emakumeen kopuruaren aldean; 7.534 emakume dira, guztira. Nahiz eta pertsonal kopuru osoan duen pisuak hiru hamarren egin duen behera, denborazko ikuspegi zabalagotik, pisuak ehuneko 3,1 puntu egin du gora, 2010arekin alderatuta, eta ehuneko 4,8 puntu, 2005arekin alderatuta.

I+Garen exekuzio-sektorea kontuan hartuta ikusten da enpresen sektorean eta goi-mailako irakaskuntzaren sektorean dela emakumeen presentzia esanguratsuagoa, kantitateari dagokionez: 4.531 eta 2.260 emakume, hurrenez hurren, eta 743 emakume administrazio publikoaren sektorean. Hala ere, termino erlatiboetan, administrazio publikoan emakumeak pertsonal osoaren % 57,3 dira; goi-mailako irakaskuntzan, % 48,9, eta enpresen sektorean, % 30,4.

I+Gko gastuaren eta langileen (DOB) bilakaera Euskal AEn. 2010-2021

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
I+Gko gastuak												
Guztira (milioi eurotan)	1.360,3	1.366,2	1.372,9	1.316,8	1.289,8	1.273,2	1.290,9	1.363,2	1.423,4	1.481,4	1.490,0	1.646,9
Urteko gehikuntza (%)	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3	1,4	5,6	4,4	4,1	0,6	10,5
BPGaren aldean (%)	2,04	2,04	2,09	2,03	1,94	1,86	1,81	1,85	1,85	1,86	2,07	2,11(p)
Langileak (DOB)												
Guztira	17.532	17.879	18.682	18.280	18.535	18.217	17.898	18.577	19.274	19.619	19.511	20.804
Urteko gehikuntza	5,0	2,0	4,5	-2,2	1,4	-1,7	-1,8	3,8	3,8	1,8	-0,5	6,6
Lanpostu baliokideekiko (%)	18,8	19,3	20,9	21,1	21,3	20,3	19,5	19,8	20,1	20,1	21,3	21,5
Ikertzaileak (DOB)												
Guztira	11.071	11.283	11.772	11.959	12.030	12.089	11.916	12.608	13.165	13.520	13.629	14.367
Urteko gehikuntza	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5	-1,4	5,8	4,4	2,7	0,8	5,4
Lanpostu baliokideekiko (%)	11,9	12,2	13,2	13,8	13,8	13,4	13,0	13,4	13,7	13,9	14,9	14,8

DOB= Dedikazio Osoko Baliokidetza

Data 2022ko Azaroaren 18a

Iturria: Eustat, Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Oharra: Eustatek eskerrak eman nahi dizkie estatistika hau egiten elkarlanean jardun duten enpresa eta erakunde guztiei, eginiko ahaleginagatik; informazio-bilketa 2022ko apiriletik urrira bitartean egin da. Haien laguntzarik gabe, ez zatekeen posible izango.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62